# 2.2 GAIAREN LANKETA

## > Non dago?

### - Bilatu

### • Herriko planoan

**Helburuak**

– Egon aditza eta postposizioak erabiltzea.
– Modu ludiko batean egon aditza eta postposizioak ikastea.
– Hainbat testuingurutan egon aditza eta postposizioak erabiltzea.
– Bizi diren herria apur bat hobeto ezagutzea.

**Prozedura**

– Ariketa hau bi modutara egin daiteke:
  - Banaka edo binaka:
    • Ume bakoitzari plano bat eta galdera-fitxa banatu.
    • Planoan galdera-fitxan idatzita dauden lekuak aurkitu.
    • Galdera-fitxan erantzunak idatzi. (Momentura arte ikasi bezala, Udaletxea nire etxearen atzean dago).
    • Talde handian, denen artean, zuzendu.
  - Talde handian:
    • Plano handi batean, denen artean, galdera fitxan idatzita dauden lekuak aurkitu eta txintxeta batekin markatu.
    • Hezitzaileak umeei, banaka-banaka, galdera-fitxan idatzita dauden galderei erantzun; ahoz. (Momentura arte ikasi bezala, udaletxea nire etxearen atzean dago).

**Oharrak**

– Herriko planoak lortzeko udalerrietako webguneetara jo. Googlemaps ere erabil daiteke.
– Plano handiagoa nahi baldin bada, udaletxean bertan eska daiteke.
– Hezitzailearen esku dago galdera-fitxako lekuak moldatzea; egokia izango litzateke norberaren herriko hainbat eraikin edo zerbitzu gehitzea.